

## Cabrera Parke Nazionala.

Cabrera uhartediaren historian zehar, zenbait aldaketa bortitz izan dira. Esku pribatuetan egon ondoren, xede militarrek betetzeko desjabetu egin zuten. 1991. urtean lur- eta itsas-parke nazional bihurtu zen, eta erreserba gisa jarraitzen du gaur egun arte.

Lur hauen balioa eztabaida ezina izateaz gain, bere itsas-hondoak dira benetan aberatsak direnak. Hondoetatik igotzen diren labarrak bertikalak dira ur-azpian nahiz azalean. Ur hauen gardentasunari esker, argi eta garbi hautematen dugu ur-azpiko paisaia; bertan ikus ditzakegu kastainola, boga, dontzeila eta muxarra sardak.

Balear uharteen biztanleen lanbide garrantzitsuenetariko bat arrantza izan da beti. Parke nazional honetan, merkataritza interes handiko espezieak ugariak dira: korrokoa, barrakuda eta seriola, esaterako, baita salpa sarda handiak ere.

Nabarmenki ugari ez izan arren, posidonia zelaiak ere badira, babestutako ekosistema mediterranearen batean espero dugun bezala. Zenbait badiatan posidonia koloniak bizi dira, euren baitan berezko ekosistema sortuz. Substratu ezberdinen gainean aurkitzen dira, baina harea finekoetan batez ere. Eredu argitsuak alga fotofilikoekin elkarbanatzen dituzte, eta azken horien gainean igeri egiten dute muxarra, kraba eta kastainolak.

Baina Cabreran substratu harkaitzsuak dira nagusi, eta ondorioz, harkaitz artean bizi diren arrainak: muxarra, kraba, berrugeta eta haitzetako barbarina, besteak beste; Cabrerako arrain aberastasuna mediterraneo itsas osoko aipagarrienetariko bat da.

Batzuetan, ur-azpiko paisaia honetako aniztasun eta handitasunak katedralen arrandia ekartzen digu gogora.

Eta beste itsas-bidaiari bat hurbiltzen da uhartedi honetara. Pelagia noctiluca espezieko marmoka da. Talde handietan agertu ohi den ornogabe hau itsas-lasterrek ekartzen dute, eta kostaldera gerturatzean, bertako zokoetara sartzen da, Cabrerako Cova Blau-ra, adibidez.

Baina Cabrerako hondoen nortasuna beste edozein arrainek baino hobeto adierazten duena meroa da, beste ahaide hurbila den beste serranido batekin batera: Abadira faltsua. Uharte nagusiaren labar bertikaletatik gertu ibili ohi dira biak.

Hormetatik urrunago, seriola sardak aurkitzen dira, ur-azpiko hareazko eremuen gainean. Harkaitzetan iadanik, itsas sugeek euren lurraldea defendatzen dute. Euren moldakortasuna dela-eta, inguru eta sakonera desberdinetan bizitzeko gai dira.

Arku eta zutabez gain, kobazuloak ugari dira uhartedi honen ur-azpiko paisaian. Ilunpetan, errege barbarinaren eta itsas izar handiaren kolore gorriak gailentzen dira. Kobazuloetako beste hainbat biztanlek kolore ezberdinak erakusten dituzte, arrokatako lotxaren arrea eta zeriantoaren kolore argiagoak.

Cabrera, bioaniztasunaren eta mediterranearen munduaren historiaren irudi konplexua.